



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: Errolda historikoaren kontsulta (EAEko udala)



*Errolda Historikoko datuak kontsultatzeko web zerbitzuak bide ematen du herritar batek izan dituen helbideak kontsultatzeko, bai eta hark erroldan kontsulta-datatik *gehienez aurreko 10 urteetaraino* izan dituen alta eta baxen mugimenduak ere; kontsultak egungo datatik hurrekoa izan behar du, edo herritarrak izapide edo prozedura administratibo baterako aurkeztutako eskabide-datatik hurrekoa.*

Zerbitzua euskal udalekin konektatuko da; izan ere, erakunde horiek daukate erroldaren datuak finkatzeko eskumena.

Zerbitzuak eskatutako datuak: hauek dira kontsultatu nahi den pertsonari buruz gutxienez ere eman behar diren datuak:

- **Dokumentazio mota (NAN/AIZ/Pasaportea/Beste batzuk):** kontsultatu nahi den pertsonaren dokumentazio-mota.
- **Dokumentazioa:** kontsultatu nahi den pertsonaren dokumentazioa
- **Izena:** kontsultatu nahi den pertsonaren izena
- **Lehenengo abizena:** kontsultatu nahi den pertsonaren lehenengo abizena
- **Bigarren abizena:** aukerakoa atzerritarren kasuan
Dokumentaziorik ez duten atzerritarren kasuan, baldin eta haien agiriaren zenbakia ezaguna ez bada edo agiririk ez badute, orduan dokumentuaren motari eta zenbakiari dagozkien etiketetan balio hauek jarriko dira:
- **DokumentazioMota: IFZ.**
- **Dokumentazioa: 00000000.**
- **Probintzia:** kontsultatu nahi den titularraren errolda-datuak dituen udalaren probintziako (lurraldeko) kodea. Hauek izan daitezke balioak: Araba (*01*), Gipuzkoa (*20*) edo Bizkaia (*48*).
- **Udalerrria:** kontsultatu nahi den titularraren errolda-datuak dituen udalaren udalerriko kodea, esaterako: *059* (Vitoria-Gasteiz), *069* (Donostia-San Sebastián), *045* (Irun), *020* (Bilbao), *013* (Barakaldo).
Ikus. DSB Eren etxe-erroldan dauden udalak
- **DataHonetatik:** kontsulta zein datatatik egingo den (gehienez aurreko 10 urteetaraino egin ahal izango da kontsulta, titularrak aurkeztutako eskabide-datatik zenbatuta) (derrigorrezkoa). Eremu honen formatua UUUUHHEE da.
- **DataHonetaraino:** kontsulta zein datataraino egingo den (titularrak aurkeztutako eskabide-datatik hurrekoa izango da) (derrigorrezkoa). Eremu honen formatua UUUUHHEE da.

Zerbitzuak informazio hau itzuliko du:

1. taula. Egoeraren kodeak:

Egoeraren kodea	Egoeraren deskripzioa	Noiz itzultzen den egoera hau
0000	Derrigorrezko datu bat edo batzuk ez dira zuzen informatuak izan.	Hori gertatzen da sarrerako datuetan balidazio-erroreak daudenean.
B	Bai, biztanleak aurkitu dira.	Hori gertatzen da kontsulta zuzen egin eta erantzun-emaileak udalerrian aurkitutako biztanleen datuak ematen dituenean.
E	Ez da biztanlerik aurkitu.	Hori gertatzen da kontsulta zuzen egin baina titularra udalerrian epealdi horretan zehar ez



G

Badira gorabeherak.

dagoenean.

Hori gertatzen da erantzuleak erroren bat antzematen duenean titularraren kontsultan.

Kasu horretan errorearen zioak informatuta azalduko dira:

[00] - Agiri-mota ez-zuzena.

[01] - NAN/AIZren formatu ez-zuzena.

[02] - Dataren formatu ez-zuzena.

[03] - Derrigorrezko datuak falta dira.

[04] - Errore bat dago zerbitzuaren datu-basean.

[05] - Errore bat dago zerbitzuaren barruan.

[06] - Titularra 18 urtetik beherakoa da.

[99] - Errore orokorra edo ezezaguna.

- **Emaizarik** ez badago = **N**: ez da beste ezein daturik informatuta azalduko.
- **Emaiza** badago = **S** eta **TitularBakarra** badago = **S**:
- **TitularBakarraren Datuak**. Kontsultatutako daten epealdian zehar titularrak egoitza izan dituen helbideen zerrenda izango du, bai eta helbideetako bakoitzean izan dituen alta eta baxen datak ere.
-
- **Emaiza** badago = **S** eta **TitularBakarra** ez badago = **N**:
- **TitularBatzuen Datuak**. Kontsultatu den titularraren datuekin bat datozen biztanleen zerrenda izango du, bai eta aurkitutako biztanle bakoitzaren egungo helbidearen datuak ere.



BERTSIOAREN KONTROLA

V00	Jatorrizko bertsioa	2018/05/24
-----	---------------------	------------

GLOSARIOA